

Columbretes uharteak Itsas Erreserba.

Columbretes uhartedia, Castelloko kostaldetik 36 bat milatara kokatua, Espainiako mediterraneoko paisaia zoragarria da. Columbretes uharteak eremu bolkaniko zabal baten ageriko parteak dira.

Uharte hauek denbora luzez airetiko tiro proba militarrek egiteko esparrua izan ziren, eta bertako uretan garai horietako aztarnak jarraitzen dute oraindik; baina hainbestekoa da artxipelago honen ur-azpiko aberastasuna, Itsas Erreserba izendatu zuten 1990. urtean.

Inguru honetako ur kalitate onak eta hondo amiltsuek bertan bizi diren komunitate biologikoen izaera eta aniztasuna mugatzen dute. Hemen, arrainek bizitoki egokia aurkitzen dute.

Uhartedi honetako uren gardentasunak alga zutituen presentzia ahalbideratzen du, baita 80 metroko sakoneran ere. Algazko estalkian, forma berezidun bat gailentzen da, Venus-en parasola gisa ezagutzen dena. Parasol bakoitza zelula bakarrekoa da.

Landare itxura duten animali iragazleek, espirografoek, esaterako, egitura berezi bat sortzen dute, euren burua hondotik bereizteko. Horrela, elikagaia harrapatzen duen adar iragazlea luzatzen dute.

Harkaitz eta kobazuloen babesean, ilunpetan egotea hobesten duten beste hainbat animaliak komunitate esziofiloak osatzen dituzte. Giro honetan, beste animalia iragazle batzuek, aszidiek, presentzia nabarmena dute. Beraien larba igerilariei bizkar hezur baten arrastoa antzematen zaien organismoak dira. Heldutasunera iristean, berriz, substratuan itsatsiak bizi dira.

Beste ornogabe mugikor batzuk, opistobrankio koloretsuak, esaterako, eta mota ezberdineko oskoldun anitz, armonian bizi dira Columbretes inguruko honoetan, harrapariak haietaz ohartu arte.

Otarraina eta beste dekapodo batzuk ugariak dira, eta uharte eta haitzen artean bazter guztietan aurkitzen dira.

Uharteen jatorri bolkanikoa dela-eta, harkaitz egiturak oso maldatsuak dira hemen, eta zulo eta koben artean argia eta itzala itsasoaren urdinarekin nahasten dira. Jatorri bolkanikoa gogorarazten duten hondo kaotiko hauetan, milaka arrain txiki batzen dira; baita beste espezie batzuen ale gazteak ere, babestoki egokiaren bila.

Arrain handiagoek, seriolek, esaterako, ur zutabea zeharkatzen dute euren harrapakinen artean izua sortuz. Zoko eta oturuntza beste harrapari handi batekin elkarbanatzen dute: barrakudarekin. Hura noraezean dabil, baina zuhurki, bere arrakasta oharkabean mugitzeko gaitasunaren arabera baita.

Hondotik gertu, itsas sugea bezalako harrapari bentiko boteretsuek arrastitik aurrera, egunez jarduten duten labrido, serranido eta esparidoak bezalako beste arrain taldeei txanda hartu eta gauzez ehizatzea hobesten dute.

Uhartedi honetako kostaldetiko urruntasuna eta bertako kutsadura-iturri eza inguru honetako uraren ezohiko kalitatearen arrazoi dira. Ezaugarri hori eta gizakion eragin urria direla medio, komunitate bentikoen egoera bikaina da hemen. Toki berezia dira uharte hauek, mediterraneo itsasoa ezohiko egoera on batean ikus baitaiteke.